# OÑATIKO

## EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUN PLANA

# OÑATIKO
## EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUN PLANA

Farapi

evident:is

Farapi S.L.
grupo Evidentis

EMAKUNDE
EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE LA MUJER

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

## UDALAREN HITZAURREA

Dokumentu honetan berdintasunaren alorrean Udalak datozen 4 urteetan garatuko dituen plangintza eta orientabideak biltzen dira. Honen bitartez, Udalak sexuen arteko parekidetasunarekiko daukan konpromisoa berretsi nahi du.

Berdintasunaren aldeko irizpideak agenda politikoetan barneratzea aurrerapauso garrantzitsua den arren, lan merkatuari, partaidetza politikoari, etxeko lanen banaketari, emakumeen aurkako bortizkeriari, pobreziari eta abarri buruzko datuek emakumeen diskriminazioa ahalbidetzen duten mekanismoak oraindik ere indarrean daudela erakusten dute. Modu honetan, gizon eta emakumeek aukera berdinak izateko duten eskubidea bermatzeak gaur eguneko erronka nagusienetakoa izaten jarraitzen du.

Helburu hau gauzatzeko beharrezkoa da maila publiko eta pribatuan aldaketa sakonak ematea: legedia moldatuz, jarrera eta portaerak aldatuz eta emakumeen partaidetza mugatzen duten gizarte egiturak eraldatuz besteak beste.

Gure helburua herritarren, herritarrekin eta herritarrentzat plan bat egitea zen, eta, horretarako, hamaika lantalde eta foro izan ditugu martxan. Herritar askok hartu dute parte bilera horietan: elkarteetako ordezkariek, hainbat erakundetako ordezkariek, udaleko teknikariek, eragile sozialek eta gai honekiko interesa duten herritarrek.

Euren lanari eta ekarpenei esker, gure ustez, Oñatiko herriaren egoerari egokitutako plan errealista eta gertukoa sortu dugu. Beraz, lerro hauen bidez, eskerrak eman nahi dizkiet parte hartu duten guztiei egindako lanagatik eta erakutsi duten prestutasunagatik.

Orain, guztion ahalegin horren emaitza aurkeztu nahi dizuegu. Plan honen bidez oñatiarron bizitzako jarduera eta esparru guztietan zabaldu nahi diogu atea berdintasunari. Urrats asko eman ditugu dagoeneko, baina oraindik pauso asko dago emateko. Orain arte bezalaxe, aurrerantzean ere ezinbestekoa izango zaigu zuen guztion bultzada eta laguntza esku artean dugun erronkari aurre egiteko.

Mikel Biain Berraondo
Oñatiko alkatea

## AURKIBIDEA


**Berdintasun Diagnostikotik Berdintasun Planera** ........ **4**

**Berdintasun Planaren oinarrizko informazioa** ........ **6**
1.Abiapuntua ........ 6
2.Printzipio gidariak ........ 7
3.Berdintasun Planaren prozedura ........ 8
4.Udalaren eskumen eta funtzioak ........ 11
5.Kudeaketa sistema ........ 12
6.Planaren jarraipen eta ebaluaketa ........ 12

**Berdintasunaren aldeko Gobernantza hobetzeko neurriak** ........ **14**

***1.Ardatza*: Emakumeen ahalduntze eta balioak aldatzea** ........ **25**
*1.programa*: Autonomia pertsonala eta balioak aldatzea ........ 27
*2. programa*: Baliabide ekonomikoak eta sozialak lortzea eta kontrolatzea ........ 36
*3.programa*: Partaidetza soziopolitikoa eta eragina programa ........ 42

***2. Ardatza*: Antolaketa sozial erantzukidea** ........ **44**
*1. programa*: Erantzukidetasuna eta denboraren erabilera berriak ........ 45
*2. programa*: Kontziliazio erantzukidea ........ 48

***3.Ardatza*: Emakumeen aurkako indarkeria** ........ **51**
*1. programa*: Sentsibilizazioa eta prebentzioa ........ 52
*2.programa*: Arreta ........ 55

**Eranskinak** ........ **57**

## BERDINTASUN DIAGNOSTIKOTIK BERDINTASUN PLANERA

Oñatiko udalarentzat Emakume eta Gizonen aukera Berdintasuna sustatzea lehentasunezko ardatza da. Norabide honetan aurrerapausoak emateko 2012an Emakume eta Gizonen Berdintasun Diagnostikoa eta Plana egitea erabaki zuen, udaleko Berdintasun Sailak bultzatuta.

> *Oñatiko udal gobernuak parekidetasuna estrategikotzat du. Arlo hau lantzeko batzorde propioa osatu du, gaia bere sakontasun eta zeharkakotasun osoan landu ahal izateko eta konpromiso osoa du desoreka egoerak irauli eta berdinen arteko gizartearen eraikuntzan beharrezko baliabideak jarri eta politika zehatzak martxan jartzeko.* **–Oñatiko Emakume eta Gizonen Berdintasun diagnostikoaren hitzaurrea-**

Herriko emakume eta gizonen errealitatea ezagutzeko diagnostikoa eragile eta herritar desberdinen parte-hartzearekin egin zen, eta bertan ateratako ondorioetatik abiatuta burutu da plan hau. Izan ere, Planaren erabilgarritasun eta arrakasta bermatzeko, ezinbestekoa da herriaren eta udalaren ezaugarriak kontuan hartzea, testuingurura moldatutako helburu errealak finkatuz.

Oñatiko Emakume eta Gizonen Berdintasuneko 1go Plana, beraz, herrian berdintasuna bultzatzeko oinarrizko tresna da, xede hau lortzeko zehaztutako programa, helburu eta ekintzak azaltzen baitira. Berdintasun plan honek lau urteko iraupena izango du, 2013tik 2016ra (biak barne).

Azpimarratu behar da plana egiterako saihestezinak diren bi irizpide jarraitu direla:

- **Berdintasun Legea, Otsailaren 18ko 4/2005 Legea**: Lege honen helburua gizon-emakumeen arteko berdintasuna bultzatzea da “eskubideak, boterea eta baliabide eta onura ekonomiko eta sozialak lortzeko orduan, baieta horiek guztiak gauzatu eta kontrolatzeko orduan”. Legeak bi estrategia azpimarratzen ditu: genero ikuspegia txertatzea eta ekintza positiboa.
    - *Genero ikuspegia*: aukera ematen du gizartearen errealitatea aztertzeko ikuspegi batetik zeinetatik posible den ohartzea gizartea emakumeek eta gizonezkoek osatzen dutela eta biek (arrazoi historiko, kultural; sozialengatik e.a) toki ezberdinak dauzkatela, botere maila ezberdinak dituztela, premia ezberdinak, egoera ezberdinak bizi dituztela, e.a. Funtsean, kontua da galdera hau egitea: nolako eragina dauka egoera, erabaki, ekintza, jardun edo dena delako horrek emakumeen eta gizonezkoen gainean? Galdera honen erantzunaren araberako neurriak hartu beharko ditugu gizon-emakumeen artean ematen diren ezberdintasunak neutralizatzeko.
    - *Ekintza positiboa:* emakumeek abiapuntuan dituzten desabantailak orekatzeko

estrategia bat da, aukera berdintasuna bera oreka hori sortzeko gauza ez denean baliatu beharrekoa.

- **EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako V. Plana**[1]: Planak bi zutabe nagusi ditu: batetik, Emakumeen eta Gizonen arteko berdintasunean Gobernantza hobetzeko neurriak azaltzen dira; eta, bestetik, hiru ardatzen arabera egituratzen da (lehentasunez jorratu beharreko gai nagusiak dira ardatzak). Ardatz hauen baitan programa desberdinak aurkezten dira; hau da, lan-ildo nagusiak.

  Hurrengo taulan hiru ardatz nagusi hauek agertzen dira, eta ardatz bakoitzaren barruan planteatzen diren programak.

| **Ardatza** | **Emakumeen Ahalduntze eta balioak aldatzea** | | | **Antolaketa sozial Erantzukidea** | | **Emakumeen Aurkako indarkeria** | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **Programa** | Autonomia pertsonala eta balioak aldatzea | Baliabide ekonomikoak eta sozialak lortzea eta kontrolatzea | Partaidetza soziopolitikoa eta eragina | Erantzukideta-suna eta denboraren erabilera berriak | Kontziliazio erantzunkidea | Sentsibiliza-zioa eta prebentzioa | Arreta |

Parametro hauen arabera antolatua da plana, baina Plan honen helburua ez da dokumentua bera, baizik eta tresna honekiko hartzen diren konpromisoak. Berdintasuna Oñatiko udalarentzat, bereziki bertako emakumeentzat, duen garrantzia ikusirik ezinbestekoa da ahalik eta eragile gehienen inplikazioa lortzea bai Planaren diseinuan eta baita planaren jarraipenean ere. Hau horrela izanik, Udaletik ahalegin berezia egin da udal alorren eta eragile sozial ezberdinen arteko elkarlana eta koordinazioa bultzatzeko. Udal langileek eta ordezkari politikoek Planarekiko konpromiso maila altua erakutsi dute, Plana udal barruan eta herrian bultzatzeko. Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna lortzeko helburuarekin Plana udal politikaren sektore guztiek zeharkakotasunez erabili beharreko tresna izan behar dela ulertzen da.

*[1] Aipatzen den V. plan hau Emakundek burutzen du, eta Eusko Jaurlaritzari aurkeztu behar dio, onartzeko. Horretaz gain, 4/2005 Legeak adierazten duenez, plangintza horren esparruan, Eusko Jaurlaritzako sailek (15.2 artikulua), Foru Aldundiek eta udalek (15.3 artikulua) berdintasunaerako planak egin behar dituzte, eta horiek bat etorri behar dute plangintzan adierazitako jarraibide eta gidalerroekin.*

## BERDINTASUN PLANAREN OINARRIZKO INFORMAZIOA

### 1. *Abiapuntua*

**Zer da Berdintasunerako plan bat?**

Berdintasunerako plana ekintza konkretu batzuen bitartez emakume eta gizonen artean berdintasun gehiago lortzeko tresna bat da. Ez da asmo adierazpen bat, ezta berdintasuna lortzeko konpondu beharreko arazo zerrenda bat ere, epe jakin batean (4 urte) eta toki jakin batean (Oñatin) **gauzatu beharreko lan egitarau bat baizik.**

**Zertarako balio du berdintasunerako plan batek?**

Berdintasunaren aldeko lana estrategia baten barruan txertatzeko, ekintzak sistematizatu eta emaitzak optimizatzeko balio du Berdintasun planak. Orobat balio behar luke prozesuan ahalik eta eragile gehien konprometitzeko.

**Nori zuzenduta dago?**

Herritar guztiei, gizon nahiz emakumeei, Udaleko arlo guztiei eta gizarte eragile guztiei. Esparru guztietatik egin daiteke lan berdintasunaren alde.

**Zertan oinarritzen gara plana prestatzeko?**

Herriko gizarte eragileek (herritarrek, elkarteek, udal langileek eta politikoek) egindako ekarpenak hartzen ditugu oinarritzat. Euren bidez identifikatzen ditugu planean sartu beharreko ekintza esparruak eta berauek gauzatzeko izango ditugun baliabideak.

## 2. *Printzipio gidariak*

**Konpromiso politikoa duen plana**
Borondate politikoa ezinbesteko baldintza da emakume eta gizonen arteko berdintasun politikak gauzatzeko. Oñatiko udalak Plana aurrera aterako konpromisoa eta prestutasuna erakutsi du, Diagnostikoa eta Planaren plangintzan zein exekuzioan. Berdintasun Planaren onarpenarekin batera, borondate politiko honen adierazgarri izango da Planeko ekintzak burutzeko udalaren aurrekontu partida bat zuzentzea.

**Plan errealista bat**
Plan honek errealista izan nahi du. Helburu errealistak ditu, Oñatiko egoerari, erabiliko diren baliabideei eta gizarte eragileen inplikazio mailari egokituak.

**Herritar guztientzako plana**
Berdintasun politikak ez dira baztertzaileak; genero ezberdintasunak ezabatzea dute helburu, eta horretarako beharrezkoa da gizonak zein emakumeak inplikatzea. Plan hau gizonei ere zuzentzen zaie, ondoko arrazoiengatik:

- Zentzugabe izango litzatekeelako gizatalde bien arteko berdintasun prozesu bat abiatzea talde bat alde batera utzita. Zaila izango litzateke, adibidez, urratsik ematea erantzunkidetasun arloan edo emakumea lan munduratzeko prozesuan gizonezkoen jarrera eta pentsaeran aldaketak sartu gabe.
- Gizonezkoen portaerak baldintzatzen dituzten maskulinitate ereduak islatzen duten genero arteko harreman mota gainditu beharrekoa delako. Gainera, maskulinitate eredu tradizionalak ondorioztatzen dituen egoera batzuk zuzentzea beharrezkoa da (arriskurako joera, agresibitaterako joera, jarrera ez oso osasuntsuak, familiarekiko harremana, aitatasun ereduak e.a).

**Plan bat aniztasunetik aniztasunean**
Emakume guztiek ezaugarri komun bat izatekotan, aniztasuna izango litzateke ezaugarri. Sexua ez da emakumeen bizitza baldintzatzen duen aldagai bakarra; aitzitik, badira beste aldagai batzuk ere, hala nola, adina, prestakuntza maila, jatorria, maila ekonomikoa, e.a. Oñatin burututako Berdintasun diagnostikoak aniztasun honen hurbilpena egitea ahalbidetu du, eta beraz, Planean txertatuko diren ekintzak oñatiarrek bizi duten errealitate desberdinetara egokitzeko xedea ere badu.

**Plan erakargarri eta parte-hartzailea**
Planak biltzen dituen ekintzak berritzaileak izan nahi dute, eta erakargarriak helburutzat duen publikoarentzat, publiko horrek gogo gehiago izan dezan euretan parte hartzeko. Berdintasun Diagnostikoa egitean eta Plana bideratzeko burutu diren parte-hartze prozesuetan (Laiatuz

saioak) agerian gelditu da badagoela herritarren eta udal-teknikarien eta zinegotzien parte-hartzerako prestutasuna. Prozesu parte-hartzaile honek berak Berdintasun Planaren erakargarritasuna hazi du inplikatutako eragileengan.

**Zerbitzuak eta baliabideak egonkortzen dituen plana**
1go Plan honen helburuetako bat da Berdintasunaren bidean udal esparru ezberdinetako zerbitzu eta baliabideak egonkortzea. Plan honetan badira batetik proposamen berriak eta bestetik lehendik egiten diren ekintzak, asmoa izanik jadanik dauden zerbitzu eta baliabideak optimizatzea berdintasunaren ikuspegia txertatuz.

**Plan ebaluagarria**
Ebaluaketa funtsezko osagaia da plangintza eta esku hartze prozesu guztietan. Plan bat bukatzen denean ezinbestekoa da jakitea nolako eragina eta oihartzuna izan duen, zeintzuk izan diren emaitza onenak eman dituzten alderdiak eta zeintzuk ezin gauzatu izan direnak edo inolako eraginik izan ez dutenak. Ebaluaketa lagungarria da, orobat, plan berri bat prestatzeko aurreko planak utzitako egoeratik abiaturik eta kontuan izanik aurreko planaren arrakastak eta ahuleziak.

## *3.Berdintasun planaren prozedura*

Oñatiko 1go Berdintasun Plan honek bi iturri nagusi ditu: Batetik, Oñatiko Emakume eta Gizonen Berdintasun Diagnostikotik ateratako ondorioak; eta bestetik, ***Laiatuz Berdintasuna Sustatu*** talde-dinamiketatik bildutako hausnarketa eta proposamenak. Diagnostikoa 2012 urtean zehar burutu zen hurrengo lau faseetan: Oñatiko datu bilketa (Oñatiko udala eta beste erakunde publikoetatik ateratako datu kuantitatiboen bitartez); landa lana (zazpi sakoneko elkarrizketa eta bi eztabaida talderen bitartez); jasotako informazioaren analisia eta azterketa; eta txostena prestatu Emakume eta Gizonen V. Berdintasun Planaren arabera. Oñatiko lehenengo Planaren abiapuntu izan den diagnostiko honetan, beraz, udalean emakume eta gizonen egoeraren berri izan genuen, hurbilpen teorikoa eta herritarren diskurtso eta pertzepzioetan sakontzearen bitartez.

Bestalde, Laiatuz teknika parte-hartzailearen filosofia ulertzeko garrantzitsua da laiak eta laiatzeak dituzten adierak ezagutzea:

> *Laia lurra **iraultzeko** erabili ohi zen tresna zen. Laia goldea baino erabilgarriagoa zen **lurra sakonago irauli** nahi zen lekuetan, eta laiatzeak **talde lanaren** beharra zuen. (wikipedia)*


1.irudia: Emakume eta gizonak laiatzen

Beraz auzolanaren filosofia eta laiatze ekintzaren ezaugarriak ekarri nahi izan ditugu plan honetara, gaur egun Oñatiko **emakumeen eta gizonen arteko egoera iraultzeko talde lana ezinbestekoa baita**.

*Laiatuz Berdintasuna Sustatu* izeneko bi saio burutu ziren, 2012ko urriaren 30ean. Saio hauek bi helburu nagusi zituzten: Batetik Oñatiko diagnostikoaren aurkezpen publikoa egitea, eta ateratako ondorioak ezagutzera ematea; eta, bestetik, Berdintasunaren inguruko herritarren, politikarien eta udal-teknikarien lehentasun, kezka eta proposamenak jasotzea.

Lehendabiziko saioa goizean burutu zen, udaleko teknikariekin eta politikariekin. Guztira 11 kidek hartu zuten parte (5 emakume eta 6 gizon): hirigintza eta zerbitzuetako teknikariak, Gizarte zerbitzuetako hiru teknikariak, lan arloko teknikaria, Udaltzaingoaren burua, ingurumena eta nekazal eremuko teknikaria, kultur teknikaria, Berdintasun zinegotzia eta alkatea. Saio hau eztabaidarako eta hausnarketarako gunea izan zen, eta Berdintasuna sustatzeko lehentasun eta argibideak identifikatzeaz gain, 32 ekintza konkretu proposatu eta adostu ziren. Era berean, Laiatuz saio hau Planarekiko udal-teknikari eta politikarien lehen hurbilketa izan zen, eta Planaren exekuzioan beraien konpromiso maila hazteko baliagarria izan dela uste dugu.




**2. irudia: Laiatuz saioko dinamikako papelografoa. Egilea: Farapi S.L.**



**3. Irudia: Udal-teknikariak eta zinegotziak Laiatuz saioan. Egilea: Farapi S.L.**

Bigarren saioari dagokionez, Oñatiko elkarte desberdinetako kideen parte-hartzearekin burutu zen. 16 lagun bildu ziren guztira, denak emakumezkoak. Herriko elkarte feministen ordezkariak egoteaz gain (Txantxikuar eta Andraitz taldeak), Jubilatuen elkartea, Emakume Alargunen taldea eta ACESMA etorkinen taldeko kideak ere elkartu ziren. Lan-saio honen ezaugarri nagusia bildutako emakumeen aniztasuna izan zen, adina, jatorri eta bizi-esperientzia oso desberdinetako emakumeak batu baitziren. Eztabaida eta elkartrukerako espazioa izan zen, eta Berdintasun Planean lehentasunezkoak izan behar diren 8 lan-ildo identifikatu ziren. Elkarte desberdinetako emakumeen artean harremanak sortzeko eta etorkizunean elkarlanerako

abiapuntua izan zen. Dinamika honek herritarrek Berdintasun Planean sakontzeko, konpromisoak hartzeko eta Berdintasuna era parte-hartzaileagoan sustatzeko balio izan du.



**4.irudia: Herritarrak Laiatuz saioan eztabaidan**
**Egilea: Farapi S.L.**



**5. Irudia: Laiatuz saioan herritarrei diagnostikoa azaltzen**
**Egilea: Farapi S.L.**

## *4.Udalaren eskumen eta funtzioak*

Berdintasun planak, Legeak finkatutako betebehar bati erantzuten dio. Emakume eta Gizonen Berdintasunaren aldeko 4/2005 Legeak oso garbi definitzen ditu emakume-gizonen berdintasunaren alorrean administrazio-maila bakoitzari dagozkion zereginak eta herri botere guztiak behartzen ditu emakume-gizonen benetako berdintasuna lortzeko baldintzak ezarri eta oztopoak kentzera, horretarako beharrezkoak diren politika eta ekintzak sustatzera.

4/2005 Legeak honako zereginak esleitzen dizkio Toki Administrazioari:

- Azpiegiturak, programak eta prozesadurak egokitu eta sortzea, genero-ikuspegia beren administrazioan integratze aldera.
- Toki-eremuan ekintza positiboko neurriak egikaritzea.
- Toki-eremuan programak egitea, Jaurlaritzaren plangintza orokorraren esparruaren barruan eta Foru-Aldundiek egiten dituzten programen esparruaren barruan.
- Estatistikak egokitu eta eguneratzea, horien bitartez toki-erakundeen eskumenekoak diren eremu guztietan emakumeek eta gizonek bizi dituzten ezberdintasuna-egoerak ezagutu ahal izateko.
- Toki-eremuan, emakume eta gizonen egoerari buruzko azterlanak eta ikerketak egitea.
- Toki-eremuan, emakumeen eta gizonen ezberdintasun-egoerari buruz eta berdintasuna sustatzeko abiarazi behar diren neurriei buruz sentsibilizazio-jarduerak egitea.
- Toki-araudia nolakoa den eta nola aplikatzen den begiratzea, emakumeen eta gizonen berdintasun-printzipioaren arabera.
- Herritarrei, eta batez ere emakumeei, informazioa eta orientabidea ematea emakumeen eta gizonen berdintasunarekin zerikusia duten baliabideei eta programei buruz, bat eta bereizkeria anizkoitza jasaten duten emakumeei oinarrizko gizarte-eskubideetarako sarbidea bermatzeko zuzendurik dauden programa eta zerbitzuei buruz ere.
- Bereizkeria anizkoitza jasaten duten emakumeek oinarrizko gizarte eskubideetrako sarbidea izan dezaten programak osatzea edo zerbitzuak ematea, zerbitzuon izaera dela eta udal mailan eman beharrekoak direnean.
- Emakumeei eta gizonei bizitza pertsonala, familia eta lana uztartzea helburu duten baliabide eta zerbitzu sozio-komunitarioak ezartzea, beren izaera dela eta udal mailan eskaini beharrekoak direnean.
- Erakunde publiko zein pribatuekin harremanak finkatzea eta partaidetza eta lankidetzarako bideak ezartzea, baldin eta erakundean xedeek edo eginkizunek toki eremuan emakumeen eta gizonen berdintasuna erdiesten laguntzen badute.
- Toki eremuan sexuaren zioz gertatzen diren bereizkeria egoerak antzematea, eta egoera horiek errotik kentzeko neurriak hartzea.
- Bakoitzari bere eskumenen eremuan agindu dakiokeen beste edozein eginkizun batetzea.

## *5. Kudeaketa Sistema*

Berdintasun Plana behar bezala abiatzeko eta haren jarraipen eta ebaluaketa egokia egiteko, lau kudeaketa egitura erabiliko dira:

- **Berdintasun Saila:**
    - **Parte-hartzaileak**: Berdintasun teknikaria eta beste zinegotzi edo teknikari laguntzaile batzuk.
    - **Funtzioak:**
        - Berdintasun Planaren jarraipen eta garapena bermatzea.
        - Planean zehazten diren ekintzak bultzatzea eta koordinatzea.
        - Inplikatutako eragile guztiak koordinatzea.
        - Planean zehaztutako helburu eta programen ebaluazioa burutzea.
        - Plana ezagutzera ematea eta komunikazio lanak egitea.

- **Berdintasun Batzordea:**
    - **Parte-hartzaileak:** Dagoeneko dagoen egitura mantendu eta indartu, elkarteetako kideak, udal arduradunak, herriko beste eragileak eta Berdintasuna sustatzean interesa duten herritar oro.
    - **Funtzioak:**
        - Berdintasun Planaren inguruan Berdintasun Sailari aholkuak eta proposamenak egitea.
        - Planaren exekuzioan Berdintasun Sailari laguntza ematea.
        - Planaren helburu eta neurrien betetze-mailaren jarraipena eta balorazioa egitea.
        - Ahuldade edo akatsak identifikatzea eta neurri zuzentzaileak proposatzea.

- **Batzordeen jarraipenerako egitura politikoa:**
    - **Parte-hartzaileak:** Oñatiko udaleko batzorde bakoitzeko arduradun politiko bat.
    - **Funtzioak:**
        - Batzorde bakoitzean garatuko diren programa eta ekintzak adostea.
        - Berdintasun Plana betetzeari dagokion batzordeen arteko koordinazio eta elkarlan esparruak zehaztea.
        - Batzorde bakoitzak burututako ekintzen betetze-maila ebaluatzea eta Berdintasun Sailari honen berri ematea.

- **Sail barruko jarraipenerako egitura:**
    - **Parte-hartzaileak:** Udal-sail bakoitzeko langileak (Saileko bilerak aprobetxatuko dira)
    - **Funtzioak:**

- Sailean burututuko diren ekintzak komunikatzea, langileen ardura eta inplikazioa bilatuz.
- Sailean onartutako ekintza eta helburuen betetze-maila ebaluatu eta Berdintasun Sailari honen berri ematea.

## *6. Planaren jarraipena eta ebaluaketa*

Oñatiko Berdintasun Plana urtero garatuko da, Programa operatiboetan finkatuz udalaren arlo bakoitzak urte horretarako burutuko dituen helburu, programa eta ekintzak. Programa hau **Berdintasun Arloak** prestatuko du, **Berdintasun Batzordearen** laguntzarekin. Bi arlo hauen arteko elkarlana ezinbestekoa da; izan ere, Berdintasun Batzordea da Plana parte-hartze prozesu aktibo baten bitartez burutzea bermatzen duena.

Programa Operatiboa errealista izan dadin ezinbestekoa da Udaleko Batzorde desberdinekin adostasunetara heltzea, eta Batzorde bakoitzak Plana burutzeko hartuko dituen konpromisoak zehaztea. Horregatik, Programa Operatiboa **Batzordeen Jarraipenerako egitura politikoan** kontrastatuko da, eta batzordeen arteko koordinazio-eredua zehaztuko da. Batzorde bakoitzak urte bakoitzean burutuko dituen ekintzak *Batzordearen ekintza Planean* jasoko da. Ekintza bakoitza betetzean *Ekintzen jarraipen fitxetan* zehaztuko da (Txosten honetako azken orrietan daude bi fitxak), eta ekintza amaitzean, Berdintasun Sailera bidaliko dira.

Berdintasun Sailak *Ekintzen Jarraipen fitxa* guztiak jasoko ditu eta hauen betetze mailak aztertuz, Planean zehazten diren estrategia eta helburuak ebaluatuko ditu. Era honetan, Planaren jarraipenaren ikuspegi orokorragoa izango du. Lan hau errazteko *Programen ebaluazioa* eta *Helburuen ebaluazioa* deituriko fitxak atxikitzen dira txosten honen amaieran. Urtean zehar jasotako datuekin azken ebaluaketa egingo da, Planak ezarritako helburuak eta programak ze punturaino bete diren zehazteko. Berdintasun Batzordearekin elkarlanean, hurrengo urteko Plan Operatiboa zehaztuko da, hutsuneak bete, moldaketak egin eta proposamen berriak txertatuz.

**Sail barruko jarraipen egitura** udal-sail bakoitzeko langileei Oñatiko Berdintasun Planaren berri eman eta beraien inplikazioa zehazteko eremua da. Sail bakoitzak adostutako ekintzak aurrera eramateko ardura du, eta baita berauek ebaluatu eta Berdintasun Sailari transmititzekoa ere.

## Berdintasunaren aldeko Gobernantza hobetzeko neurriak

Oñatiko udalean emakume eta gizonen berdintasunaren aldeko pausuak emateko, beharrezkoa da aukera berdintasunerako politikak udaleko arlo guztietatik zeharkakotasunez bultzatzea. Gobernantza da ikuspegi honen atzean kokatzen den teoria eta hurrengo esanahia du: Prozesu politikoak antolatzea, hobetzea, garatzea eta ebaluatzea, neurri politikoak hartzeko orduan zeresana duten aktore guztiek politika, maila eta etapa guztietan sar dezaten genero berdintasun ikuspegia (Europako Kontseilua, 1998).

Oñatiko udaleko errealitatera egokituta, Berdintasunaren aldeko Gobernantza hobetzeko hurrengo sei edukiak proposatzen ditugu, Emakumek aurkeztutako EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako V. Planean oinarrituta. Hurrengo atalean neurri orokor bakoitzari dagozkion ekintzak azaltzen dira.

1. **Administrazioaren barruan Berdintasuna sustatzearen aldeko neurriak eta arauak ezartzea**: Estrategia honen helburuak udalaren kontratazio politikarekin eta ematen diren diru-laguntzekin loturiko zenbait ekintza biltzen ditu.
2. **Planaren jarraipenerako koordinazioa**: Berdintasun Sailak Planaren exekuzioan inplikatutako arlo ezberdinekin izan beharreko koordinazioaz ari da.
3. **Berdintasun Sailetik prestakuntza eta aholkularitza eskaini**: Berdintasun Sailak, Berdintasun Batzordearen laguntzaz, gainontzeko Batzorde eta sailei eskaini ahal dien aholkularitza eta laguntzaz ari da, hauek genero ikuspegia euren eguneroko jardunean txertatu dezaten.
4. **Genero ikuspegia estatistiketan eta azterlanetan txertatzea**: Sexua kontuan izango duen datu bilketa sistematizatua ezartzearen inguruko ekintzak biltzen ditu.
5. **Hizkuntza, irudi eta eduki ez sexistak bultzatzea**: Dokumentu publiko guztietatik hizkuntza, irudi eta eduki sexistak desagerraraztezko neurriak biltzen ditu.
6. **Genero ikuspegia aurrekontu, arau eta programetan txertatzea**: Aurrekontuetan eta administraziotik burutzen diren programetan genero analisia eta genero eragina neurtzen hasteko zenbait esperientzia proposatzen dira.
7. **Berdintasun plana jakitera eman**: Informazio-bide ohikoetan Berdintasun Plana burutu dela jakitera eman eta Planaren aurkezpen publikoa burutzearen garrantzia azpimarratzen da.

## 1. Berdintasuna sustatzearen aldeko neurriak eta arauak ezartzea

| Kodea | Ekintzak | Arduraduna | 2013 | 2014 | 2015 | 2016 | Aurrekontua | Adierazleak |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| G-1.1. | Enplegu publikoko deialdietan hizkuntza eta edukien erabilpen ez sexista egiten dela bermatu aldizkari, udalaren argitalpen, baldintza-agiriak eta enplegu eskaintzetan. | Batzorde guztiak | | | | | | • Enplegu publikoko deialdi kopurua<br>• Hizkuntza eta edukien erabilpen ez sexista egiten den deialdi kopurua.<br>• Hizkuntza eta edukien erabilpen sexista egiten den deialdi kopurua. |
| G-1.2 | Lan-deialdi publikoetako eta oposizioetako gaitegian berdintasunarekin lotutako edukiak sartzea | Alkatetza | | | | | | • Identifikatutako enplegu publikoko deialdi kopurua<br>• Sartuko diren gaiak eta edukiak definitu<br>• Deialdi bakoitzean sartutako gai kopurua<br>• Berdintasunarekin lotutako edukiak sartu ez diren deialdi kopurua. |
| G-1.3 | Ordenantza orokorrean genero irizpideak sartu kanpo kontratazioarako eta diru-laguntzetako | Alkatetza | | | | | | • Ezarritako genero irizpideak identifikatu<br>• Genero irizpideak betetzen dituztela egiaztatzen den eskabide eta lizitazio kopurua.<br>• Eskabidea egiteko ezarritako irizpideak betetzen ez dituzten eskabide kopurua.<br>• Aurreikusitakoak ez diren beste genero irizpide batzuk erabiltzen dituzten eskabide kopurua.<br>• Diruz lagundutako entitate eta pertsona kopurua.<br>• Ezarritako irizpideekin diruz lagundutako eskabide portzentajea.<br>• Emandako diru kopurua ezarritako irizpideak dituzten eskabideak. |

| Kodea | Ekintzak | Arduraduna | 2013 | 2014 | 2015 | 2016 | Aurrekontua | Adierazleak |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| G-1.4 | Ordenantza orokorrean genero irizpideak sartu herriko elkarteei diru-laguntzak emateko orduan | Kultura Kirola Gazteria Hezkuntza eta Euskera | | | | | | • Ezarritako genero irizpideak identifikatu<br>• Genero irizpideak betetzen dituztela egiaztatu den eskabide eta lizitazio kopurua.<br>• Eskabidea egiteko ezarritako irizpideak erabiltzen ez dituzten eskabide kopurua.<br>• Aurreikusitakoak ez diren beste genero irizpide batzuk erabiltzen dituzten eskabide kopurua.<br>• Diruz lagundutako entitate eta pertsona kopurua.<br>• Ezarritako irizpideekin diruz lagundutako eskabide portzentajea.<br>• Emandako diru kopurua ezarritako irizpideak dituzten eskabideak. |
| G-1.5 | Kulturako eta kiroletako diru-laguntzak ematean puntuagarritzat hartu elkarteek proposatutako ekintzak erantzun zuzena ematea 1go Berdintasun Planaren helburuetarikoren bati. | Kultura Kirola | | | | | | • Irizpideak ezartzea<br>• Irizpideak jaso ahal izateko eredu bat prestatzea<br>• Irizpideak erabiltzen dituzten eskabide kopurua<br>• Irizpideak erabiltzen ez dituzten eskabide kopurua<br>• Aurreikusitako irizpideez aparte beste genero irizpide erabiltzen den eskabide kopurua. |
| G-1.6 | Kanpo kontratazioko kasuetan klausula bat sartu gaitasun berdintasuna dagoenean gutxien ordezkatutako sexua kontratatzeko. | Alkatetza | | | | | | • Eskaintza edo enplegu publikoen irizpideak identifikatu.<br>• Klausula ezarri ez den eskaintza kopurua.<br>• Zenbat aldiz erabili da klausula<br>• Klausula erabili izan den eskaintzetan izandako eragina. |

| Kodea | Ekintzak | Arduraduna | 2013 | 2014 | 2015 | 2016 | Aurrekontua | Adierazleak |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| G-1.7 | Aisialdiko zerbitzuak kontratatzerakoan (Gazte-txokoko langileak...) kontuan hartu kontratatzen den antolakundeak hezkidetza irizpideak betetzen dituela. Pertsonak direnean hezkidetza formazioa izatea. | Kultura<br>Kirolak<br>Gazteria<br>Euskara eta Hezkuntza<br>Ongizatea | | | | | | • Kontratazio ekintzak identifikatu<br>• Identifikatutako hezkidetza irizpideak<br>• Lizitazioetan ezarritako irizpideak<br>• Kontratazioetan erabilitako irizpideak<br>• Irizpide honek erabiltzen dituzten entitate kopurua<br>• Irizpide honek erabiliz egiten diren kontratazio kopurua<br>• Hezkidetza irizpideak erabiltzen ez dituztenen kontratazio kopurua |
| G-1.8 | Emakumeen eta gizonen partaidetza orekatua duten epaimahaiak osatzea lehiaketa guztietan | Batzorde guztiak | | | | | | • Zenbat lehiaketetan egon den epaimahaia<br>• Zenbat emakume eta gizonezkok osatu duten epaimahaia |
| G-1.9 | Sailetako barne-promozioetan emakumeen inplikazioa hazteko neurriak hartu | Sail guztiak | | | | | | • Proposatu diren neurriak<br>• Hartutako neurriak<br>• Neurriez baliatu diren emakumeak |

## 2. Planaren jarraipenerako koordinazioa

| Kodea | Ekintzak | Arduraduna | 2013 | 2014 | 2015 | 2016 | Aurrekontua | Adierazleak |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| G-2.1 | Berdintasun Saila batu adostutako maiztasunarekin | Berdintasun Saila | | | | | | • Egindako batzar kopurua, denbora, modua eta edukia<br>• Batzarretara deitutako pertsonak<br>• Batzarrean parte hartu duten pertsonak |
| G-2.2 | Berdintasun Batzordea batu adostutako maiztasunarekin | Berdintasun Batzordea | | | | | | • Egindako batzar kopurua, denbora, modua eta edukia<br>• Batzarretara deitutako pertsonak<br>• Batzarrean parte hartu duten pertsonak |

| Kodea | Ekintzak | Arduraduna | 2013 | 2014 | 2015 | 2016 | Aurrekontua | Adierazleak |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| G-2.3 | Batzordeen jarraipenerako egitura politikoa batu adostutako maiztasunarekin | Batzordeen jarraipenerako egitura politikoa | | | | | | • Egindako batzar kopurua, denbora, modua eta edukia<br>• Batzarretara deitutako pertsonak<br>• Batzarrean parte hartu duten pertsonak |
| G-2.4 | Sail Barruko Jarraipen egituretan Berdintasun Planaren jarraipena egin adostutako maiztasunarekin | Sail guztiak | | | | | | • Zein maiztasunekin adostu den Planaren jarraipena egitea<br>• Zein maiztasunarekin burutzen diren Planaren jarraipenerako batzarrak<br>• Zenbat pertsonek parte hartzen duten batzarretan |
| G-2.5 | I. Plana ebaluatzeko sistema prestatu eta jarraitu | Berdintasun Saila | | | | | | • Programa, helburu eta ekintzen balorazioa<br>• Adostutako zenbat ekintza burutu diren<br>• Adostutako zenbat ekintza ez diren burutu |
| G-2.6 | Berdintasunaren aldeko urteko ekintzen plangintza prestatu | Berdintasun Saila | | | | | | • Plangintza osatu, baliabideak, datak eta beste ezaugarriak zehaztu. |
| G-2.7 | Berdintasun Batzordeko kideen kopurua hazteko saiakera egin | Berdintasun Batzordea Berdintasun Saila | | | | | | • Inbertitutako baliabide kopurua<br>• Deialdia heldu zaien pertsona kopurua<br>• Berdintasun Batzordean parte hartzeko prest agertu diren pertsona kopurua |
| G-2.8 | Berdintasun Saileko ekarpen eta iradokizunak jaso eta kontuan hartu | Batzorde guztiak | | | | | | • Egindako proposamen kopurua<br>• Proposatutako eta/edo ezarritako proposamenen balorazioa. |
| G-2.9 | Koordinazio eta jarraipen lanetan hasi Debagoienako beste herrietako Berdintasun Sailekin. | Berdintasun Saila | | | | | | • Egindako batzorde kopurua, denbora, modua eta edukia<br>• Koordinatzeko erabilitako beste modu batzuk |

## 3. Berdintasun Sailetik prestakuntza eta aholkularitza eskaini

| Kodea | Ekintzak | Arduraduna | 2013 | 2014 | 2015 | 2016 | Aurrekontua | Adierazleak |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| G-3.1 | Sail edo zerbitzuetako prestakuntza edo aholkularitza premiak identifikatu eta Berdintasun Sailari jakinarazi. | Batzorde guztiak | | | | | | • Identifikatutako premia kopurua<br>• Premia hauek asetzeko proposatutako prestakuntza kopurua<br>• Nori zuzendua dago prestakuntza<br>• Parte hartu duten pertsonen kopurua sexua eta lan arloa berezituz<br>• Egindako prestakuntzen balorazioa. |
| G-3.2 | Berdintasun Sailak proposatutako prestakuntzetan parte hartu | Batzorde guztiak | | | | | | • Egindako prestakuntza kopurua<br>• Nori zuzendua dago prestakuntza<br>• Parte hartu duten pertsonen kopurua sexua eta lan arloa berezituz<br>• Egindako prestakuntzen balorazioa. |
| G-3.3 | Berdintasunaren inguruko baliabideen gaineko informazioa sistematizatu | Berdintasun Saila | | | | | | • Zenbat zerbitzu eta errekurtsoren zabalkundea egin den<br>• Egindako zabalkunderako ekintza kopurua |
| G-3.4 | Arlo guztiek informazioa eman Berdintasun Sailari arlo bakoitzean berdintasun gaietarako dauden baliabide eta zerbitzuei buruz | Batzorde guztiak | | | | | | • Jasotako informazioa (zenbat, zein arlotik eta zein udalerritik)<br>• Zein Batzordek bidali duen informazioa |
| G-3.5 | Generoan formazioa eman teknikariei eta Sailetako beste langile batzuei | Sail guztiak | | | | | | • Ikastaroaren ezaugarriak zehaztu<br>• Parte-hartzaile kopurua<br>• Egindako prestakuntzaren balorazioa |
| G-3.6 | Datu base bat sortu berdintasun arloaz interesatuta dauden pertsona eta erakundeekin eta Batzordean egiten diren ekintzak jakinarazi | Berdintasun Batzordea | | | | | | • Datu basean dauden pertsonen kopurua sexua berezituta<br>• Zenbat aldiz bidali den informazioa.<br>• Komunikazioaren balorazioa |

| Kodea | Ekintzak | Arduraduna | 2013 | 2014 | 2015 | 2016 | Aurrekontua | Adierazleak |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| G-3.7 | Udalaz gaindiko erakundeek eskaintzen duten berdintasun inguruko aholkularitza zerbitzuez baliatu (hirigintzan, enplegua sustatzeko politiketan…). | Batzorde guztiak | | | | | | • Zenbat udal sailek eskatu duten aholkularitza zerbitzua.<br>• Jasotako proposamen kopurua<br>• Eraldatzeko neurri kopurua |

## 4. Genero ikuspegia azterlan eta estatistiketan txertatzea

| Kodea | Ekintza | Arduraduna | 2013 | 2014 | 2015 | 2016 | Aurrekontua | Adierazleak |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| G-4.1 | Adostu eta aplikatu irizpide komun batzuk datuak bildu eta aztertzeko orduan (diagnostiko eta ebaluazioetan). Eskatu beharreko gutxieneko minimoa sexukako banaketa izango da, baina aukera dago bestelako irizpide batzuk ere sartzeko baldin genero ikuspegitik interesagarriak badira (diru sarrerak, norberaren gain dauden pertsona kopurua, ezintasunak, jatorria...) | Berdintasun Saila<br><br>Berdintasun Batzordea<br><br>Batzorde guztiak | | | | | | • Identifikatutako irizpide kopurua<br>• Zenbat aldiz aplikatu den irizpidea<br>• Zenbat aldiz ez den irizpidea aplikatu<br>• Irizpideen erabilgarritasuna<br>• Egindako azterketa kopurua<br>• Adostutako irizpideen arabera egindako azterketa kopurua |

| Kodea | Ekintza | Arduraduna | 2013 | 2014 | 2015 | 2016 | Aurrekontua | Adierazleak |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| G-4.2 | Kultur, kirol, jai, eta beste edozein jarduera motan partaideak sexuaren arabera jaso. Honetaz gain, beste irizpide batzuk ere jasotzea gomendatzen da, bereizketa anizkoitzeko egoerak identifikatzeko. | Batzorde guztiak | | | | | | • Partaide kopurua sexuaren (eta beste aldagai batzuen) arabera jasota.<br>• Sexua jaso den ekintza kopurua.<br>• Sexua jaso ez den ekintza kopurua. |
| G-4.3 | Jai Batzordeko kideen sexuak eta burutzen dituzten lanak jaso. Antolatzen diren ekintzetan partaide kopurua (protagonista eta partehartzaile) sexuaren arabera jaso. | Kultura Jai Batzordea | | | | | | • Kideen kopurua sexuaren eta betetzen duten lanaren arabera<br>• Antolatzen diren ekintza kopurua sexuaren eta parte hartzeko eraren arabera.<br>• Sexua jaso den ekintza kopurua.<br>• Sexua jaso ez den ekintza kopurua. |
| G-4.4 | Elkarteei sexuaren araberako datuak jasotzeko irizpideak eman, udalari eskatutako diru-laguntzak justifikatzeko memorietan ager daitezen. | Berdintasun Saila Kultura Kirola | | | | | | • Ezarritako irizpideak (kopurua)<br>• Jasotako datu kopurua sexu bereizketa eginez<br>• Jasotako datu kopurua sexu bereizketa egin barik<br>• Informazioa eman zaien elkarte kopurua<br>• Ezarritako irizpideak jarraitu dituzten elkarte kopurua.<br>• Jarritako irizpideen inguruko elkarteen balorazioa. |
| G-4.5 | Jasotako datuak ustiatu, emakume eta gizonek bizi duten egoera, baldintza, jomuga eta premiak identifikatzeko. | Berdintasun Batzordea | | | | | | • Alor bakoitzean jasotako datuetatik ateratako ondorio kopurua<br>• Beharrezkoa balitz, berdintasuna sustatzeko neurri kopurua |

## 5. Hizkuntza, irudi eta eduki ez sexistak bultzatzea

| Kodea | Ekintza | Arduraduna | 2013 | 2014 | 2015 | 2016 | Aurrekontua | Adierazleak |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| G-5.1 | Hizkuntza ez sexistarako gidaliburuak banatu Batzorde eta Sailei (Emakundek kirolerako, hezkuntzarako… argitaratzen dituenak adibidez) | Berdintasun Saila | | | | | | • Banatutako gidaliburu kopurua<br>• Erabilera ez sexistarako gidaliburuaren inplementazioa<br>• Arlo ezberdinen balorazioa egindako difusioaren inguruan. |
| G-5.2 | Aztertu arlo bakoitzak ekoizten dituen dokumentu publikoak eta ezabatu euretatik hizkera, eduki eta irudi sexistak | Batzorde guztiak | | | | | | • Hizkera eta eduki sexistak erabili dituzten dokumentu kopurua.<br>• Proposatutako zuzenketa kopurua<br>• Egindako zuzenketa kopurua<br>• Aztertzeko eskatutako dokumentu kopura. |
| G-5.3 | Alor desberdinetatik argitaratzen diren deialdi eta karteletan irudi eta hizkuntza ez-sexistak erabiltzen diren aldizka aztertu | Batzorde guztiak | | | | | | • Zenbat deialdi/kartel argitaratu diren berdintasun irizpidea kontuan hartuta.<br>• Zenbat mezu eta irudi ez-sexista argitaratu diren.<br>• Zenbat mezu eta irudi sexista argitaratu diren. |
| G-5.4 | Gai honen inguruan proposatzen diren prestakuntza jardueretan parte hartu | Batzorde guztiak | | | | | | • Egindako prestaketa kopurua<br>• Parte hartzaile kopurua sexua eta lan arloa berezituz<br>• Egindako prestaketaren balorazioa. |
| G-5.5 | Herriko elkarte eta zerbitzuei hizkuntza eta irudi ez sexistak erabili ditzaten aholkularitza eta prestakuntza eman | Berdintasun Saila | | | | | | • Antzemandako elkarte eta pertsona kopurua (emakume eta gizonak)<br>• Prestakuntza kopurua.<br>• Aholku kopurua<br>• Pertsonen balorazioa |

## 6. Genero ikuspegia arau, aurrekontu eta programetan txertatzea

| Kodea | Ekintzak | Arduraduna | 2013 | 2014 | 2015 | 2016 | Aurrekontua | Adierazleak |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| G-6.1 | Berdintasun ikuspegia txertatzea herritarrei zuzendutako programa guztietan. | Batzorde guztiak | | | | | | • Zenbat programek barneratu duten genero ikuspegia<br>• Zenbat programetan ez den barneratu genero ikuspegia<br>• Zenbat herritarrek hartu duten parte programa hauetan |
| G-6.2 | Aurrekontua genero ikuspegitik aztertzeko proiektu pilotu bat egin udaleko kultura sailarekin. | Kultura Berdintasun Batzordea | | | | | | • Azterketaren emaitza<br>• Zenbat neurri ezarri diren.<br>• Tresnaren balioa beste arlo batzuetan aplikatzeko bitartekoak jarri.<br>• Proiektu pilotuaren balorazioa |
| G-6.3 | Udal aurrekontu guztiak genero ikuspegiarekin egin | Batzorde guztiak | | | | | | • Zenbat neurri ezarri diren<br>• Azterketaren emaitzak<br>• Aurreko urteko aurrekontuaren konparazioa |
| G-6.4 | “Berdintasun marka” diseinatu berdintasun irizpideak betetzen dituzten programa eta aurrekontuak identifikatzeko | Berdintasun Saila | | | | | | • “Berdintasun marka” izateko irizpideak zehaztu<br>• Zenbat programa eta aurrekontuk duten “Berdintasun marka”<br>• Zenbat programa eta aurrekontuk ez daukaten “Berdintasun marka” |

## 7. Berdintasun plana jakitera eman

| Kodea | Ekintzak | Arduraduna | 2013 | 2014 | 2015 | 2016 | Aurrekontua | Adierazleak |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| G-7.1 | Plana ezagutzera eman udaleko eragile, enpresa eta herritarrei, aldizkariak, bandoak, e-mail zerrenda, eta ohiko beste bideak erabiliz. | Berdintasun Saila | | | | | | • Zenbat eragile, enpresa eta herritar talde identifikatu diren informazioa bidaltzeko<br>• Zenbat eta zein bide erabili diren informazioa jakietara emateko<br>• Informazioa heldu den biztanleriaren kopuru estimatua |
| G-7.2 | Planaren aurkezpen publikoa egin, diagnostikoan parte hartu duten elkarte, politikari eta herritarrak gonbidatuz, besteak beste. | Berdintasun Saila | | | | | | • Gonbidatutakoen zerrenda<br>• Agertutako pertsona kopurura sexuaren arabera banatuta<br>• Antolatzaileen balorazioa |
| G-7.3 | Planaren ebaluazioa publiko egin, Planaren hobekuntzan herritarren inplikazioa eta parte-hartzea bultzatzeko helburuarekin | Berdintasun Saila | | | | | | • Zenbat eragile, enpresa eta herritar talde identifikatu diren informazioa bidaltzeko<br>• Zenbat eta zein bide erabili diren informazioa jakietara emateko<br>• Agertutako jende kopurua (emakume eta gizonak)<br>• Jasotako proposamen kopurua<br>• Balorazioa |
| G-7.4 | Zabalkunde sistematikoa eman, bai Udalaren barruan eta bai kanpoan, Berdintasun Batzordean egiten diren ekintzei buruz | Berdintasun Batzordea | | | | | | • Identifikatutako komunikabide kopurua<br>• Egindako buzoneo kopurua<br>• Banatutako kartel kopurua<br>• Bidalitako e-mail kopurua<br>• Zabaldutako ekintza kopurua<br>• Herritarren balorazioa |

## EMAKUMEEN AHALDUNTZE ETA BALIOAK ALDATZERAN ARDATZA

Ahalduntzeak “botere eskuraketa” suposatzen du; hau da, emakumeek euren posizio politiko, ekonomiko eta soziala indartzea. Erabaki eta botere prozesuetan emakumeen parte-hartzea handitzea ahalbideratuko duen banakako eta taldeko kontzientzia pizteko prozesua da.

Berdintasunerako V. Planak horrela azaltzen du *Emakumeen ahalduntze eta balio aldatze* ardatza: Pertsonak bere bizitzari eragiten dioten baliabide eta erabakiei buruzko autoritatea eta boterea areagotzeari deritzogu ahalduntzea. Beraz, emakumeak, banaka eta talde gisa, euren egoeraren jabe egiterekin dago lotuta, horrela areagotu egingo dutelako erabakiak hartzeko prozesuetan duten parte-hartzea, bai eta boterea erabiltzeko eta eragina izateko ahalmena ere. (EAEko emakumeen eta gizonen berdintasunerako V. Plana)

Ardatz honen barruan hiru programa nagusi planteatzen ditu Emakunderen txostenak:

- **Autonomia pertsonala eta balioak aldatzea**: V. Planean agertzen den bezala programa honen helburu nagusia emakumeen ahalduntze pertsonala areagotzea da. Norberaren eskubideak, balioa eta autoestimua indartzean datza prozesu hau, emakumeek beren bizitza kontrola dezaten. Bestalde, programa honetan balioak, portaerak, sinesmenak eta sexuei esleitutako roletan dauden estereotipoak aldatzeko neurriak bultzatzen dira.
- **Baliabide ekonomikoak eta sozialak lortzea eta kontrolatzea**: Baliabide ezberdinekiko (ekonomikoa, formazioa, osasuna, kultura, kirola e.a) duten iriste maila handitzeko neurriak biltzen ditu programa honek.
- **Partaidetza soziopolitikoa eta eragina**: Herriko erabaki eta planifikazio guneetan emakumeen presentzia sustatzeko ekintzak biltzen ditu. Baita emakumeen elkartegintza sustatzeko neurriak ere.

Programa hauen barruan, helburu estrategiko batzuk zehazten ditu txostenak, eta hauek oinarritzat hartuz, Oñatiko zerrendatu ditugu, udaleko ezaugarri propioak, antolakuntza erak eta prozesu parte-hartzailetik ateratako ondorioak kontuan hartuta.


ARDATZA
I.Emakumeen ahalduntze eta balioak aldatzea
PROGRAMAK
1.Autonomia pertsonala eta balioak aldatzea
2. Baliabide ekonomikoak eta sozialak lortzea eta kontrolatzea
3. Partaidetza sozio-politikoa eta eragina
HELBURU ESTRATEGI-KOAK
1.1.Emakumeen autonomiaren garapena eta genero kontzientzia bultzatzea
1.2.Balioen aldaketa bultzatzea, Sexuaren araberako rol sozialak eta estereotipoak deuseztatzea
2.1.Emakumeen Laneratzea eta lan Baldintzak eta mailaz igotzeko aukerak hobetzea, taldeen eta egoera aniztasuna kontuan hartuta.
2.2.Pobrezia edota bazterketa arriskuan dauden emakumeen egoera hobetzea.
2.3.Baliabide sozialetarako sarbidea hobetzea; batez ere, diskriminazio anitzeko egoeren arretari dagokionez.
3.1.Emakumeek elkarteen mugimenduan parte hartzea bultzatzea.
3.2.Erabaki eta eragin alorretako emakumeen irismena handitzea
EKINTZAK

## 1. Autonomia pertsonala eta balioak aldatzea programa

### 1.1. Emakumeen autonomiaren garapena eta genero kontzientzia bultzatzea

| Kodea | Ekintzak | Arduraduna | 2013 | 2014 | 2015 | 2016 | Aurrekontua | Adierazleak |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| A-1.1.1 | Martxoak 8, ekainak 28 eta azaroak 25 era integral eta parte-hartzailean antolatu. Egitaraua aste osoko informazio/formazio ekintzetara luzatu. | Alkatetza<br><br>Berdintasun Batzordea | | | | | | • Zenbat gizon eta emakumeek hartu duten parte prestaketan.<br>• Zenbat ekintza eta zein ezaugarrietakoak, antolatu diren.<br>• Zenbat emakume eta gizonen hartu duten parte antolatutako ekintzetan. |
| A-1.1.2 | Abenduak 10 (Giza eskubideen eguna), Azaroak 20 (Umeen eskubideen eguna), abenduak 18 (Etorkinen eguna) eta beste data esanguratsuetan emakumeen aldarrikapenak plazaratu. | Berdintasun Batzordea<br><br>Beste eragile sozial batzuk | | | | | | • Zenbat gizon eta emakumeek hartu duten parte prestaketan.<br>• Zenbat ekintza eta zein ezaugarrietakoak, antolatu diren.<br>• Zenbat emakume eta gizonen hartu duten parte antolatutako ekintzetan. |
